

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

1219

EBAZPENA, 2023ko otsailaren 22koa, Industria Administrazioiko Arabako lurralde-ordezka-riarena, zeinaren bitartez zehaztutako finkak okupatu aurreko aktak egiteko deialdia egiten baita. Aipatutako finkak instalazio honen eraginpean daude: Urkabustaiz udalerrian (Araba) «13,2 kV-ko zirkuitu sinpleko aireko linearen eroalea berritzeko proiektua, "Urkabustaiz-Izarra Cto1", 170013700 zenbakiko "Larrazcueta" transformazio-zentro berrirako deribazioetan».

Espedientea: 01-AT-Y-2022-00016.

Industria Administrazioiko Arabako lurralde-ordezkararen 2022ko urriaren 5eko Ebazpenaren bidez, alde z aurreko administrazio-baimena eta eraikuntza-baimena eman ziren, eta aipatutako instalazio elektrikoa onura publikokoa zela deklaratu zen.

Sektore Elektroari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 54. artikuluan ezarritakoa- rekin bat etorritik, onura publikoaren deklarazioak berekin dakar ondasunak okupatu beharra edo eraginpeko eskubideak eskuratu beharra, eta okupazioa presaz egin beharko da, Nahitaezko Des- jabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 52. artikuluan ondorioetarako.

Ondorioz, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 52. artikuluan xedatutakoa betez, Industria Administrazioiko Arabako lurralde-ordezkariek erabaki du ebazpen honen eranskinean agertzen diren eraginpeko ondasun eta eskubideen titularrei eta jabeei dei egitea, Urkabustaizko udaletxean biltzeko (udalerririk horretan baitaude eraginpeko ondasunak), eraginpeko ondasunak okupatu aurreko aktak egiteko, 52. artikuluan ezarritako prozedurarekin bat etorritik.

Interesdun guztiak, bai eta eragindako ondasunen gaineko edozein motatako eskubide edo inte- resen titularrak diren pertsonak ere, pertsonalki edo behar bezala baimendutako pertsona batek ordezkatuta bertaratu beharko dira, eta titulartasuna egiaztatzen duten dokumentuak (eskriturak, Jabetza Erregistroko informazio-oharrak edo beste batzuk) eta kontribuzioaren azken ordainagi- ria aurkeztu beharko dituzte, finkako errentariarekin batera (halakorik balego); gainera, egokitze jotzen badute, peritue edo notario batekin ere joan daitezke.

Aktak 2023ko apirilaren 20an egingo dira, 09:00etatik aurrera, Urkabustaizko udaletxean. Titu- lar bakoitzari zitate-zedula bat bidaliko zaio, eta hor zehaztuko dira lekua, eguna eta ordua. Era berean, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan ezarritako gainerako argital- penak ere egingo dira.

Desjabetze-espedientean, I-DE Redes Eléctricas Inteligentes, S.A.U. enpresak onuradun izaera hartuko du.

Era berean, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen Erregelamenduaren 56.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, argitaratutako zerrendetan agian agertzen ez diren eskubide errealk zein interes ekonomikoen titularrek eta interesdunek egoki ikusten dituzten alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte, eraginpeko ondasunen eta eskubideen zerrendetan izan daitezkeen akatsak

zuzentzearren. Alegazio horiek idatziz aurkeztu beharko dira Industria Administrazioiko Arabako Lurralde Ordezkaritzan (Samaniego kalea 2, 01008 Vitoria-Gasteiz), eta hori egiteko epea aurreko aktak egiteko egunean amaituko da.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 22a.

Industria Administrazioiko Arabako lurralde-ordezkaria,
PEDRO RODRIGUEZ DIAZ.

ERANSKINA

Finka	Poligonoa	Partzela	Udalerria	Titularrak	Eguna	Ordua
1	3	308	Urkabustaiz	Domingo Urquijo	2023-04-20	09:00
2	3	748	Urkabustaiz	Domingo Urquijo	2023-04-20	09:20